

LIZARDI ZANAREN BESTE LAU OLERKI

KARMEL aldizkari onen aurreko zenbakian atera genituen Lizardik bere gaztetan Bilboko EUZKO-DEYA aldizkarian argitaratu zituen zortzi olerki. Guztitara emezortzi olerki argitaratu zituen olerkari ospetsuak aldizkari artan. Olerkigintzan Zarauzko seme argiak emandako lenengo emaitzak dira, gaur gutxi ezagutuak ala ere. Gaur beste lau geiago dakazkigu gure aldizkari onen orrietara. Lauron artean dator Lizardizale guztiak ezaguna dutena, OIA-ri egindakoa. Ez genduen emen ateratzeko asmorik, baiña olerki orrek izan zuen leenengo idazkera ezagutu nai dutenentzat emen ezagueraztera erabaki dugu.

Irakurleak ikusi dezakenez, era askotako bertsoak egiten zituen bere gaztaroen ere: liriko, irrizko, ipuiezko eta abar. Bertso-neurriz ere, naiko ugaria agertzen zaigu.

OIA izendunaz gaiñera, emen dituzu, irakurle, *Maiteder* (ipuiezkoa, aselea). *Euzko Mendiya* (liriko abertzalea), eta Aste Santuko otoiz laburra, kristau sinisimenak eta aberri-miñak eragifia.

L. Akesolo

EUZKO - MENDIYA

Len arranuak bizi ziraden
Zure arkaitz gogor-artetan,
Gau eta egunez, begi zoliaz,
Euzko-Aberriya-zainketan...

Arrotz-gudozte-burni-ditzira
Urrun-ibarran sortzian,
Euzkel-erriko gaztigu-deya
Arrano-oyuba oiomen-zan.